



INAUTERIETAN NOR DA NOR?



Ilustrazioa: Amaia CARRERE

PITXU

Mundua hankaz gora jartzearen plazera

Aitzpea LEIZAOLA

Zuberoako maskaradako beltzen artean, Pitxu dugu maskaradaren pertsonaia xelebreena. Beltzez jantzia, kaute-
ren laneko jardunak eskatu bezala aurpegia zikin, pal-
toaren atzealdean jositako oihal zurian idatzitako
izenak baino gehiago, zapeleko uso hegalek salatzen du-
te nortaz ari garen. Kauteren artean ezinbesteko pertso-
naia, bera da txikiena, komikoena eta trebeena, plazan bildutakoak
barrez leherrarazten dituen. Kauterekin batera ez ezik, beste zenbai-
ten jokoetan ere hartzen du parte, kerestuekin eta xorrotxeekin hain
zuzen.

Euskal Herriko ihauteririk goiztiarrenak izan ohi dira maskaradak.
Inoiz, Urtats egunez edo biharamunean hasi izan dira. Urtero, Zube-
roako herri bateko gazteek hartzen dute beren gain maskaradak pres-
tatu eta herriz herri eramateko ardura. Zenbaitzuetan, herri bat baino
gehiagoko gazteek hartzen dute beren gain maskarada. Maskaradak
ihaute festa ibiltariak dira, eta Zuberoa osoa trabeskatzen dute, urtez
urte ibilbidea desberdina bada ere maskaradak prestatzen dituen he-
rriaren arabera.

Halako erronka bati aurre egiteko, herriko gazte ia guztiek hartu
behar dute arduraren bat. Dantzari trebeak, kantuan eder ari direnak,
musikariak, baina baita trufa egiteko prest diren gazteak ere, lotsaga-
beak bezain probokatzailleak. Pitxurekin batera, Kabana Handia eta
gainerako kautera eta buhameekin barrikadaz barrikada eta plazaz
plaza aritzeko prest direnak.

Kabana Handiak predikuan plazaratzen ditu herri bakoitzeko gora-
beherak. Pitxuren ibilera maskarada errezibitzen duen herrira egoki-
tzen da aldiro. Gutxien espero duzun lekuan agertzen da Pitxu; bihu-
rrikeria handienak egiten iaioa, Pitxuk aro aldaketa irudikatzen du.
Plazako emanaldian, hil eta berpiztu egiten da, medikuaren tratamen-
du bereziei esker. Urtero errepikatzen den unea beti da hunkigarria
eta gogoangarria. Ihauteri garaiko anabasa eta egun gutxi batzuez ba-
da ere mundua hankaz gora jartzeko aukera beste inork baino hobeto
gorpuzten ditu Pitxu trauskilak. «Hau Pitxu, hau!» oihuak Zuberoako
mugak gainditu ditu aspaldi.

ZIRTZILAK

Zikin, zaratatsu eta euskarazko hitzaren jabe

Aitzpea LEIZAOLA



Ilustrazioa: Amaia CARRERE

Lapurdik eta Nafarroa Behereko ihauterietan ez dira falta zirtzilak. Zenbaitetan, haurrentzat eskola testuinguruan antolatutako ihauteri jarduketan bereziki, aurpegi estaliko eta nahikoa itxura homogeneoko pertsonaia gisa agertzen zaizkigu. Aldiz, gazteek antolatutako ihauteetan agertzen diren zirtzilak, dela Lapurdiko kaskarotekin batera, dela Nafarroa Beherean duela bi hamarkadaz geroztik biziberritu diren libertimenduetan, bestelakoak dira. Etxe sabai eta armairuetan pilatutako jantzi eta bestelakoak soinean emanez, nolahi jantzen da zirtzila. Zirtzilarentzat, ordea, moxorroa ez da jantzi kontu soila. Gainerako ihauterietan gertatzen den moduan, jarrerak markatzen du egunerokotasunarekiko desberdintasuna.

Zikina eta zaratatsua da zirtzila, basaren sinonimoa. Baina, era berean, hitzaren jabe da. Libertimenduaren logikan berak ditu herriko kontuak aipatzen, ustelkeriak salatzen, kritikak egiten eta txutxumutxuak haizatzen. Herri antzerki gisa ikertu izan dira halakoak. Dantzak, esker errondak, xaxatze eta zikintze saioak nagusi diren ihauteri sorta askotariko bezain aberatsean, gutxi dira hitzezko jarduna erdigunean dutenak. Maskaradetan hainbat pertsonaiak hartzen du hitza. Zantzarren gisako lastozko gizon, Markitos edo Mielotxinen epaiketari bada diskurtso labur bat, erre aitzin epailearen papera egiten duenak, herriaren ordezkari, kargu hartzeko irakurtzen duena.

Libertimenduan, zirtzilak parean du dantzaria, eder eta mutu. Zirtzilek, haiekin batera libertimenduan jarduten diren bertsolarien moduan, hitza ekartzen dute ihauterien erdigunera, eta euskara plazaren erdigunean ematen. Oso gazteak izan ohi dira zirtzilak, garai bateko ihauteen igarotze erritua gaurkotuz. Zirtzilen jardunak trebakuntza eskatzen du, dantzarienak bezala, testuen pentsatze, idazte eta moldatzea, inprobisatzeko gaitasuna eta plaza hartze kolektiboan nor izateko ausardia. Azken bi hamarkadotan Euskal herri osoa hedatzen ari den fenomeno bizia da, gazteak, euskara, komunitatea eta tradizioak birpentsatzeko bidea ematen duena.



Ilustrazioa: Amaia CARRERE

ZAMALTZAINA

Maskaradako pertsonaia ikusgarria

Aitzpea LEIZAOLA

Zuberoako maskaradetako pertsonaia ikusgarriena da zamaltzaina. Dantzari trebe batek gorpuzten du. Maskaradako beltzeriaren parean, ordena eta araua irudikatzen duen gorrien taldeko pertsonaiarik anbiguoena ere bada. Erdi-gizaki erdi-zaldi, jantzi apainez beztitua, koha buruan, zurezko egitura mugikor bat darama bizkarretik heldua, gerri partetik behera zaldia irudikatuz. Zaldi buruari eutsiz dantzarazten du zamaltzainak zaldia bera.

Maskarada bera ikaragarri kodetutako errituala da, dantza eta antzerkia tartekatzen dituen, elementu sinbolikoz betea. Aitzindarien artekoa da zamaltzaina, txerreroa, gatuzaia, kantiniarsa eta entseinariarekin batera. Eurek ematen dituzte jauzi ikusgarrienak. Arratsaldeko emankizuneko bi ofizio, zamaltzainaren inguruan ardazten dira: keres-tuek zikiratu ondorenean, marexalek zamaltzaina ferratzen dute, Lantzeko ihauterietako zaldiko bezala. Hartz dantzarekin gertatzen den moduan, gizakiak natura mendean hartu nahi izana irudikatzen da hala.

Zenbaitetan, zamaltzain beltza karrikaratu izan du beltzeriak, maskarada eramaile den herriak duen dantzari trebe kopuruaren erakusle. Barrikaden aurrean zein plazan, guztietan dantzatzen du. Zamaltzainak herriko dantzarien trebezia neurtu eta irudikatu ohi du, bai Zuberoan bertan, bai eta maskaradetako dantzak interpretatzen dituzten dantza taldeen artean ere. Zamaltzaina godalet dantzan ikustea gogoangarria da.

Europako beste herrialdeetan badira ere zamaltzainaren itxurako pertsonaiak, ez beti ihauteri ospakizunei lotuak (Kataluniako Oloteko *els cavallets*, Ingalaterrako morris dantzetako *hobby-horse* askotarikoak). Greziar mitologian ezaguna zen zentauroaren pertsonaia. Euskal Herrian bertan, Lantzeko zaldikoaz gain, badira jai testuinguruan antzeko beste pertsonaia batzuk ere, Iruñeko zein Lizarrako erraldoiekin batera irteten diren zaldikoak, esaterako.

Ederra da zamaltzaina mugimenduan ikustea. Zamaltzaina, hori bai, ez da bakarrik agertzen plazara. Maskaradako pertsonaia guztiak ez dira urtero plazan aritzen, ez eta beti kopuru beretan ere. Horrek egiten du urtez urte maskaraden xarma. Zamaltzainik gabeko maskaradarik, baina, ez da ezagutu egundaino.

MARKINAKO HARTZA

Naturaren izaera basatia

Aitzpea LEIZAOLA

Egutegi paganoaren oroigarri ditugu inauteriak Europa guztian zehar. Ilargiaren araberrako egutegi zaharra azalarazten da inauteri ospakizunen atzean, kristautasunaren sinkretismopean mozturaturik. «Kandelario bero, negua gero; Kandelario hotz, negua motz», dio esaera zaharrak.


Hainbat herritako inauterietan topatzen dugu hartza. Beste mozturro guztien gainetik, izaera basatiari egiten dio erreferentzia zuzena. Ohikoak dira animalia askotarikoen errepresentazioak euskal landa eremuko inauterietan, izan pertsonaia itxuran, izan animalien portaera edo ezaugarrien bidez, izan zuzenki animalia atalak giza gorputzera lotuta; ardi larruak, oilar edo zapelatz lumek, azeri buztanak edo zerri maskuriak, benetako edo irudikatutako, guztiek egiten diote erreferentzia naturari, eta bereziki basa izaerari. Hartza da horren erakusle behinena.

Ituren eta Zubietan, Arizkun, Donostiako kaldereretan, Zuberoako maskaradetan –ez beti baina–, eta Markinan, guztietan hartzak protagonismo berezia du. Kasik hiru hamarkadaz Hartzaro Festibala antolatzen dute inauterien kari Errobi bazterretan, Uztaritzen. Zenbaitetan ikaragarri basa ageri da, besteetan gizakiaren mendean, katea motzean lotuta, hartz hezitzailearen esanetara. Hala gertatzen da Markinan, non hartz hezitzaileak ardi larruz estalitako hartz galanta dantzaztea duen helburu. Goizuetan bezala, zahagi dantza da aratusteetako ikuskitun nagusia. Egun antzara jokorik ez da egiten gehiago. Baina katetik libratu eta ihes egiten du hartzak, ikusleak izutuz aratuste domekaz, Markinako kaleetan barrena.

Pirinioetan zehar, otsailaren 2a data seinalatua da; hartza neguko lozorrotik esnatzeko egun gisa ohoratzen da. Badira Pirinioetako mendilerroaren bi aldeetan hartza iratzartzearen inguruko kondairak eta errepresentazio ugari, kristautasunaren aurretik bizitza ilargiaren araberrako egutegiak antolatzen zen garaia oroitarazten dutenak. Hartzak ilargirik gabeko zeru beltza ikusten badu, puzker egin eta lo segitzen du. Udaberriaren esperoan egon beharko dugu.

Ilustrazioa: Amaia CARRERE





ARETXABALETAKO TXINOAK

Intimitatea plazara, denen bistara

Aitzpea LEIZAOLA

Kontraste garaia da funtsean inauteria, egunerokoa zili-purdika jarri eta ordena iraultzen den garaia. Inauteria kolore biziekin eta kaosarekin lotzeko joera nagusitzen bada ere, badira zuria nagusi dituzten mozerro eta pertsonaiak. Zuria da nagusi Mundakako atorren artean, bai eta hainbat dantza jardunetan ere. Gizarte tradizionalean, zuria arropa barruko arroparen kolorea zen, baina baita une zeremonialetakoa ere. Hala ageri zaigu dantza munduan.

Aretxabaletako txino dantza berreskuratu zeneko 50. urteurrena ospatu zen iaz. Herri tradizioak berreskuratu eta birsortzeko Franco hil osteko fenomenoaren adibide ederra dugu, nahiz eta beste inauteri batzuen aldean ez den hain ezaguna.

Alkandora luze zuri bat –jatorriz lotarako gizonen eta emakumezkoen erabiltzen zuten kamisoiak-, buruan zapi edo zapel bat eta oinetan kolore desberdinetako galtzerdi eta oinetako bana jantzita agertzen dira gazteak, binakako lerroa osatuz, Aretxabaletako kaleetan, aurpegia beltzez zikinduta. Barruko arroparekin kalera irteeta izan da mozerro ximple bezain efikaza, Tolosan Zaldunitako dianak gogorarazten duen moduan, intimitatearekin lotu ohi dena plazan denen bistan jarritz. Aurpegi belztu eta kamisoi zuriaren arteko kontrastea, txistu hotsez dantzan eta kantuan jarduten dira. 1998az geroztik mutil zein neskek osatzen dute txino dantza.

Neguko festen artean Debagoieneko tradizio handia duen Santa Agedarekin gertatzen den moduan, jatorria kintoekin lotzen da; 18 urte betetzen dutenek egiten zuten dantza. Hala, Santa Ageda bezperan hasitako zikloa ixten da inauterietan eta adin nagusiko bihurtu berri direnak plaza hartzen dute bigarren. Berreskuratutako kantutak euskaratu eta, 1975az geroztik, karnabal domekaz egiten dute txino dantza. Dantzari izena ematen dion pertsonaiaren inguruan teoria desberdinak jaso izan dira ahozko iturrien bidez. Euskal Herriko beste dantza komiko batzuekin antz handia du doinuari, keinuei eta dantzarien antolaketari dagokienez, sorgin dantzarekin adibidez.



Ilustrazioa: Amaia CARRERE

MUNDAKAKO LAMINAK

Itsasbazterreko emakumeen etorrera alaia

Aitzpea LEIZAOLA

nauteriak aipatzean, nagusiki landa eremuko herriak irudikatu ohi ditugu. Bizkaiko kostaldean, baina, badira ibilbide luzea duten aratusteak, Lekeition esaterako, zein berrikiago abian emandakoak ere, Bakioko Anarru eguna kasu. Mundakan Frankismoko urteetan ere mantendu ziren aratusteak. Zuriz beztitutako atorrekin, estudiantina moduan antolaturiko gizon gazteekin, musika instrumentuak eskuetan hartuta, propio aratusteetarako konposatutako kantu eta koplak kantatuz, Mundakako portua alaitzen dute domeka goizez.

Franco hil ondoren, ospakizuna berreskuratu, indartu, baina bereziki gaurkotu egin zen. Horren adibide da 1977an emakume gazte talde batek, inauterietan parte hartzeko gogoak akuilatuta, laminen pertsonaia sortu izana: emakumezkoek gorpuzten dute lamina, aurpegi zurian begi-hondoak beltz, beltzez jantzita, abarkak oinetan eta artilezko ileorde hori luzez apainduta, iji-ajaka musika joz; herriko kaleetan dantzan eta kantuan ibiltzen dira arratsalde partean, goizeko atorrekin kontrastean.

Euskal mitologiako pertsonaiaren aratusteetako presentziak, erreketan ez ezik, itsasbazterretan ere laminen inguruko kondairak badirela gogorarazten digu. Mundakan bertan bada Lamiaran izeneko baseliza bat, izen bereko auzoan. Mundakan, beste hainbat herritan bezala, kontrajarritako dikotomien logikaren barruan ardatzen da inauteria: ordena eta anabasa egunaren antolaketan zein koloreen kontrastean gorpuzten dira, baina irizpide nagusia generoaren arabera berezitako pertsonaietan haragitzean datza.

Laminen pertsonaiak inauteri ospakizunetan emakumeen lekuaz galdekatzen gaitu, iraganean hartutako erabakiak mahai gaineratuz lehenik, baina baita gaur egungo eztabaidek izan dituzten erantzunak aintzat hartuz ere. Hainbatetan isildu edo gutxietsi izan da emakumeen parte hartzea inauterietan, baita parte hartze hori gertatu izan den kasuetan ere. Are, zenbait rol edo mozorrotan parte hartzea ukatu ere egin zaio emakumeari, bereziki azken hamarkadetan eta ustezko tradizioaren izenean. Egun, jantzien inguruan hausnarketa interesgarriak daude euskal dantzaren eremuan eta inauterien testuinguruan. Usu, mozorro edo jantzi berberen bidez bermatu da emakumeen parte hartzea gizonezkoen ondoan, bai eta genero iruditeriari loturiko jantzien bidez ere (gonak vs galtzak), edo, bestela, Mundakan bezala, berezko pertsonaiak sortuz.

MOMOTXORROAK

Sarde, adar eta mantal odolduen hipnosia



Ilustrazioa: Amaia CARRERE

Aitzpea LEIZAOLA

A Itsasuko inauteriak goia jotzen du astearte arratsean. Gerra garaian galdu ziren inauteriak. Altsasu orduan askoz txikiago zen, gaurkoarekin konparatuta. Franco hil ondorenean berreskuratu zituzten inauteriak, bai eta eraberritu ere, pertsonaia berriak sortuz, errituari ikuskizun garaikideen elementuak gehituz. Europako beste herri batzuetan ere dokumentatu da Altsasun irudikatzen den ereintzaren eszena: bi mozorrok uztarrira loturik tiratzen dute goldea, idi parez balira bezala.

Herri inauteri gisa ezagutzen direnen adibide ederra da Altsasukoa, landa eremuari erreferentzia egiten diona, denboraz kanpoko balitz bezala. Etengabe moldatzen ari den inauteria ere bada. “Odolaren erri-tua” deiturikoa adibidez –momotxorroak mantal zuria odolez blaitzen duten unea–, mozorrotuen eta ikusleen arteko banaketa markatzeko baliatzen ari da azken urteotan. Eta ez da harritzekoa, inauteriak duen erakarpena ikusirik, jende uholdea hurbiltzen baita Altsasura.

Itxura beldurgarria dute momotxorroek. Ardi larrua bizkarrean, urritzezko saski handi batekin tamainaz nabarmen handitzen dira momotxorroak. Saskiari loturik, bi behi adar mardul. Aurpegia estaliz, uztarrrian ibiltzeko kopetakoa edo berau gogorarazten duten ile edo artile hariak. Besoak odoletan bustirik, mantal zuriak odoleztaturik, sardea eskuetan, oinezkoak eta ibilgailuak xaxatzen ibiltzen dira Altsasuko kaleetan. Landa eremuan lanerako ohikoak izan diren mahonezko galtza eta abarrek salatzen dute mozorroaren azpian gizakia dagoela.

Inauteri gehientsuenetan gertatzen den moduan, pertsonaia gehiagok ere hartzen dute parte Altsasuko inauterietan: juantranposoak –Ziripoten gisako mozorro handikote eta baldarrak–, maskaritak eta sorginak. Akerraren figura ere tartean da, akelarrearen irudikapen eta guzti. Aurpegia ez ezagutzeko moduan estaltzea arau da Altsasun. Momotxorro dantza zatatatsu bezain hipnotikoa egiten dute, behin ilunduta plazako kioskoaren inguruan bueltaka. Amaitutakoan, maskarak kentzen dituzte denek batera. Aurpegi zikin izerdituetan poztasuna agerikoa da.

MARKITOS

Gaizkiaren erantzule mutu, herriak epaitua

Aitzpea LEIZAOLA

Zalduondoko inauterietako pertsonaia nagusia dugu Markitos, Euskal Herriko hainbat herritan inauteri garaian urterik urte epaitu eta erretzen diren panpinen artean ezagunetarikoa. Adierazgarria da Zalduondoko inauteriaren bilakaera. Franco hil eta ondoko urtean, 1976an, bertako etnografo eta herritarren ekimenez berreskuratutako inauteria dugu, herri kulturarekiko konpromisoaren adibide bikaina. Diktadura amaitu berri-tan ekin zioten adineko jendeari bildutako lekukotzak aintzat hartuz inauteria berpizteari, eta, ordutik, erreferente garrantzitsua izan da Zalduondo, Arabako Lautadan ez ezik, baita Euskal Herri osoan ere.


Urtero sortzen dute herriko gazteek giza itxurako panpina. Zurezko egitura ximple batean osatzen dute Markitos, gizonezko praka eta txaketa lastoz bete eta buruari ileordea eta zapela jarrita. Lepoan, hamahiru arrautza oskolez osatutako lepokoa darama, zuri-gorri-berdez margotuta. Urte osoan herrian –eta herriaz gaindi– gertatutako gauza txar guztiak gorpuzten ditu Markitosek, gaizkiaren erantzule, pagaburuaren adibide esanguratsua da. Arabako Lautadako beste zenbait herritan izen desberdina duten antzeko pertsonaia gehiago ere badaude: esaterako, Toribio Araian eta Lastozko Gizona Eginon eta Ilarduian.

Igande inautea Markitosen inguruan ardatzen da: astoan paseatzen dute herrian goizean, eta ondotik makila luze batean iltzatu –behinola gaizkileak zigortzen zituzten moduan–, harik eta plazan zintzilik uzten duten arte, arratsaldera bitarte. Bazkalondoren, gurdian eramaten dute eta herritarren aurrean epaitu eta su ematen diote. Zalduondokoa da Hego Euskal Herrian gordetzen den inaute epaiketa testuen artean zaharrena, 1897koa.

Markitosen gisakoak dira Lantzeko Mielotxin eta Lapurdiko hainbat herritan 1970eko hamarkadan berreskuratutako zanpantzar figurak: tokian toki, guztiak atxilotu, epaitu eta gehientsuenetan erre egiten dituzte. Bidelapur historikoak, inauteri zikloari lotutako pertsonaia aseezinak eta jatun galantak irudikatu ohi dituzte panpinok, leporatzen dizkieten gaitz guztien aurrean, mutu daudenak guztiak ere.

Ilustrazioa: Amaia CARRERE





JOALDUNAK

Natura lozorrotik esnatzen duen hots erritmikoa

Aitzpea LEIZAOLA

Joan den mendeko hondarrean Euskal Herri osoan egin ziren ezagun joaldunak, bai festa eta aldarrikapen testuinguruetan ageri zirelako, bai hamaika herri eta hiritan joaldun taldeak sortu zirelako. Ituren eta Zubietara, baina, joaldunen berezko ingurunea. Urtarrilaren azken asteburuan ospatzen dituzte inauteriak. Aurretiaz, Errege bezperaz, hasten dira motorrak berotzen. Nafarroako herri zenbaitetan ohikoak ziren zintzarrotsak Errege bezpera iluntzean ere, negu minean natura lozorrotik esnatu nahian bezala.

Malerrekako bi herrien arteko bisitak markatzen du inautea: astelehenez Iturenak egiten die harrera zubietarrei, eta, biharamunean, iturendarrek Zubietako plazara jotzen dute. Haien atzetik doaz gazteek muntatutako karroza ikusgarri eta irudimentsuak, landa eremuko osagai garaikideez lagunduta, dela motozerra, dela bestelako tramankulu. Joaldunen figura estilizatu eta hots erritmikoaren ondoan, piltzarrez jantzitako mozorrodun andanak hartzen du plaza, eta anabasa zaratsak inauteez gozatzera hurbildutako zientoka ikusleak asaldatzen ditu. Joaldun lerroen artean, hartza.

Kanpotik antzekoak badirudite ere, ñabardura ageriko zein sotilagoek bereizten dituzte Zubietako eta Iturengo joaldunak, bai eta Aurtitz auzokoak ere: joareak desberdin jotzen dituzte, pausoa emateko modua ez da bera... Guztiek daramate ttuntturroa buru gainean koloredun xingolez eta goialdean oilar lumentz apaindua, eta guztiek eramaten dituzte emakumezkoen azpiko gona parpailaduna, abarrik oinetan eta hisopoa eskuin eskuan. Gerri bueltan, berriez, ardi larru ongi estutuen gainean paratutako 10-12 litrotako joare ederrak dituzte. Hori bai, iturendarrek, aurtiztarrek barne, bizkarra ardi larruz estaltzen dute, zubietarrek ez bezala.

Plazako jarduna ezagunena bada ere, joaldunek etxetik etxeko puska biltzean parte hartzen dute, inauteak egiten dituztenen otorduetan gozagarri izango diren arrautza eta bestelako jakiak bilduz. 1990eko hamarkadan hasi ziren emakumezkoak joareak paratzen Ituren eta Zubietan. Egun, gazte talde handia dago, neska zein mutil, joaldunek sortzen duten magiari segida emateko prest.

KASKAROTAK

Lapurdiko gazteen igarotze errito dantzatua

Aitzpea LEIZAOLA



Ilustrazioa: Amaia CARRERE

U rtea hastearekin bat, maskaradak bezain goiztiar edo goiztiarrago hasten dira Lapurdin kaskarotak. Besteak beste, Beskoitze, Uztaritze, Itsasu, Hazparne, Urruña, Biriatu, Ziburur eta Donibane Lohizunen errotoak inauteak ospatzeko moldea da. Etxez etxe ibiltzen dira kaskarotak urteroko bisita egiten. Goizetik hasita arratsera arte, harrera egiten dieten etxeetan jan-edana eskaintzen diete gazteei. Halakoetan, jan-edanari neurria hartzean datza gakoa, aldiro dantza behar bezala egin behar baita, azken etxean lehenengoan bezala. Gazteentzat benetako igarotze erritua izan da historikoki.

Dantza taldeak formalki sortu aurretik, herri bakoitzeko kaskarotek dantzatzeko zituzten ximple, marmutx, makila-txiki, makila-handi, dantza-jauziak, fandangoa, besteak beste. Neskak kaskarot dantzetan sartzen hastearekin bat, emakumezkoen jantzi baten beharra agertu zen 1970eko eta 1980ko hamarkadetan. Luze jo du zenbaitetan prozesuak; neskak onartzen azkenak Uztaritzeko kaskarotak izan dira, 2023an. Irizpide orokorrak mantenduz, herri bakoitzak ñabardura propioa eman nahi izan dio nesken jantziari.


Dantza jarduna da kaskaroten egiteko nagusia. Trebezia bezain garrantzitsua da eusten jakitea. Zuriz beztituak, xingola koloretsuak eta urre koloreko apaingarriak eramaten dituzte, bai eta usu loreak ageri dituzten elementuak ere, dela buruan, ilean apaingarri, kasketan ala zapietan. Bi ilara osatuz dantzatzeko dira. Ponpier eta kotilungorriak ere taldearen parte dira, bai eta banderariak ere, eta zenbait herritan eta urtetan hartza ere agertu izan da. Kaskarotekin kontrastean ibiltzen dira zirtzilak, zernahi gisaz mozturoriturik, petralkerietan.

Inauteri garaia heldu ahala, herriari itzulua egiten diote. Auzoka antolatutako ibilbideen arabera markatzen dute egutegia. Inaute garaiko asteburuetan, herriko gazteriak etxerik urrunenak bisitatzen ditu, bizpahiru larunbat edo igandez. Herriaren hedadura eta dantzan aritzeko gazteen indarra eta trebeziaren arabera, ordea, luzatu egin daiteke kaskaroten garaia. Beskoitzen, esaterako, hamar asteburu segidan igaro izan dituzte dantzan, urtaril hasieratik otsail erditsu arte.

ZIRIPOT

Garizumaren aurreko tripakadaren seinale

Aitzpea LEIZAOLA



Ilustrazioa: Amaia CARRERE

Zortzikoarekin eta inauteriekin lotzen dugu Lantzeko herria, 1970eko hamarkadan inauteria berreskuratu zutenetik, Mielotxin eta bereziki txatxoak Euskal Herriko eskola kasik guztietan baitira ezagun. Haiekin batera, Lantzeko inauterietan dugu Ziripot ere; erraldoi lodikote eta baldarra da, kalean gora eta behera ibiltzeko makila sendo bat daramana eskuan. Aurpegia trapu zuri batez estalia eta lastozko zapela bu-ruan, landa eremuko mozerro gehientsuenen antzera, mozerro mutua da. Lastoz betetako pertsonaiok, zenbaiten iritziz, garizumaren aurreko tripakadez eta zerri hiltzearen garrantziaz ohartarazten gaituzte. Landa eremuan guztiak beti gosea ezin berdindu zebiltzan oroigarri dira.

Udaletxeko ganbaran prestatzen dira mozerroak. Bertan josten dituzte Ziripoten hankak eta bularraldea osatzen dituzten zakuak, ondoren lastoz bete eta giza gorputza eraldatzeko. Banaka igotzen dira gazteak bertara, baina denak batera aterako dira kalean ate aurrean esperoan dagoen jendetzaren aurrera. Elkarren arteko ezagutza maila saihe-tsezina zen herri txikietan, inaute garaiak askatasun era-bateko egun gisa bizi ohi ziren, aurpegi estaliek eta ibilera eraldatuak identitatea ezabatzeko aukera bermatzen bai-tzuten. Horretarako, ordea, isilik egon behar. Musikak pro-tagonismo berezia hartzen du testuinguru horretan.

Ziripote Lesakako zakuzaharren zein Zalduondoko porreroen jiteko mozerroak gogorarazten ditu. Lan-tzen, baina, Zaldiko abil eta zirikatzaileak behin eta ber-riz lurrera botatzen du Ziripot, ferratzaileek Zaldiko harrapatu eta ferrak jarriko dizkioten arte. Aldiro txatxoak laguntzaz zutitu eta aurrera egiten du he-rriko kaleetan barrena.

Astelehen eta asteartez ospatzen dute inaute-ria Lantzen. Gerra ondorenean, beste hainbat herritan bezala, eten egin zen inauteria, harik eta antropologoaren arreta piztu zuten arte. Caro

Barojaren lanek egin zuten ezagun 1970eko hamar kadaz geroztik. Euskal Herriko landa eremuko inauteria-ren ikur bilakatu da Lantzeko inauteria: estalitako aurpe-giak, gorpuzkera eraldatuak eta mutu diren mozerroak, denboraz kanpoko sinbolikari erreferentzia egiten dio-ten jantzi eta iruditeriak.

TOLOSAKO TXILABA

Jantzi eta txarangen atzetik, gazteak!

Aitzpea LEIZAOLA



Ilustrazioa: Amaia CARRERE

Euskal Herri osoan famatuak dira Tolosako inauteriak. Hiri inauteri ezagunena eta biziena dugu. XVIII. mendekoak dira aipamenik zaharrenak. XIX. mendez geroztik egun ezagutzen dugun egitura mantentzen du, Ostegun Gizenez hasi eta inaute astearte bitarte luzatzen da. Egunduz guztiak, ordea, ez dira berdinak eta tolosarrek barre ugari egin izan dute larunbatez moztortuta bertaratu direnen kontura. Zaldunita –inaute igandea–, Astelehenita eta Asteartita egunduz handiak dira Tolosan.

Musikak, kaleko txarangek, konpartsen desfileak eta gazteek eta ez hain gazteek moztortuta plaza zein kale kantoietan osatzen dituzten eszenek ematen diote Tolosako inauteriari bere grazia berezia, umorea, satira eta kritikarako uneak tartekatuz. Ezagunak dira gazte kua-drillek osatzen dituzten karrozak, zein baino zein originalagoak.

Txilaba da, baina, Tolosako inauterien ikur eta moztorro berezkoena. Ostegun Gizenez, txupinazoarekin lehertzen da festa eguerdian gazteak eta nerabez lepo dagoen udaletxe plazan. Tolosarrak zientoka ateratzen dira kalera txilaba soinean, inauteriak ospatzeko irrikan.

Jantziaren izenak ematen dio izana moztorroari. Gorputzaren goialdea estaltzen duen kolore biziko oihalez propio jositako tunika bat da. Gerri arterainokoa, edo luzexegoa izan daiteke, jantzi beroen gainetik jantzeko modukoa; zabala eta mauka luzeduna da, lepo aldean ire-

kidura du, eta, Magreben tradizionala den jantziak bezala, txano punttaduna du, muturrean ponpoi batez apaindua.

Jantzi estimatua da Tolosan, eta hainbatetan familia edo/eta lagunarte taldea ikusarazten du, zehazki, txilaba oihal berarekin josten denean.

Pieza berezia da txilaba. Nagusiki gazteek eta nerabeek soinean badaramate ere, adin eta genero guztietakoek jantzen dute. Beste inauteri askotan ez bezala, ez dago trapu zaharrez edo beste erabilera bat emandako jantziz egina. Jantze hutsarekin inauteri giroa gorputzera itsasten da. Izenak izana ematen du. Txarangen atzetik saltoka, lepotik edo besotik helduta kalean gora kalean behera dantzaz ibiltzen dira txilaba koloretsuak, inauterizaleak adinik ez duela gogorarazten.



MAMUXARROA

Aurpegia estali eta ingurukoak xaxatu

Aitzpea LEIZAOLA

Ergoienan, Andiarako bide bazterrean dago Unanu, ehun biztanle baino gutxiago biltzen dituen herri koxkorra. Bertako inauterietako pertsonaia nagusia, mamuxarroa da. Goitik behera zuriz beztiturik, behiala gizonezkoek neguan erabiltzen zuten barruko puntuzko galtza luzeekin, Galiziako edo Portugal iparraldeko hainbat moztarotan gertatzen den modura, xafla koloreztatuz egindako maskara –edo bertan dioten moduan katola– hieratiko ederren atzean ezkutatzen dira gazteak. Haga luze bat eskuetan, koloretako xingoladun lastozko kapela edo zapi bat buruan, gerriko gorria edo beltza daramate. Soinean zeharka, zintzarri txiki sorta, panpalixak, lasterka egiten duenean mamuxarroaren nondik norakoaren berri ematen dutenak.

Bere kutsu enigmatikoa azpimarratu bada ere, xaxatzailea da zinez mamuxarroa. Moztarria eta gainerakoak segidan bereizten dira inaute garaian. Mamuxarroek, bi metro luzeko hurritz hagarekin, herriko kaleetara ausartzen diren pertsona bakanen zangoak astintzen dituzte gogotik. Ez dira ezeren aurrean kikiltzen. Etxeko goxoan, leihotik begira direnengana balkoietara igo izan dira. Ez da harritzekoa denak lasterka ihesi joatea.

Mamuxarroekin batera muttuak ateratzen dira Unanun; emakume jantzi koloretsuak soinean, hauek ere aurpegia estalirik, eta, izenak dioen bezala, mutu. Aurpegia estaltzeak bermatzen duen anonimotasuna garrantzitsua da Unanu moduko herri txikietan. Hemen ere, emakumezkoak berandu sartu dira jokora, duela hamar bat urte.

Egun jende gutxi bizi bada ere urtean zehar Unanun, inauteria mantentzea lortu dute, bertakoentzat, heldu zein gazte, ospakizun garrantzitsua delako. Hala, herrian bizi ez arren bertako senitartekoak dituzten gazteak herrira itzultzen dira ohitura eraberritzera. Hemen ere, inauteriak herri identitatea sendotu eta komunitatea agerrarazteko balio du, modu sinbolikoan bada ere.

Mamuxarroak ikaragarri ezagun egin dira azken urteotan. Ikerlari, argazkilari edo kazetariak baino efektu handiagoa izan du Zetak taldeak. Bailarako musika taldeak, agertokietara eraman zuen moztarria Mitoarria ikuskizuneko kontzertuetan, Nafarroako beste herrietako inauteri pertsonaiekin batera.

ABALTZISKETAKO TXANTXOAK

Etxez etxeko eskea, erratz eta guzti



Aitzpea LEIZAOLA

nauteri igandean Abaltzisketako txantxoak etxez etxe ibiltzen dira eskean eta dantzan, makila dantza. Etxe bakoitzaren atarian erratza pasa eta txantxoek makila-txiki deritzon makila dantza eskaintzen dute, soinu jolea eta zesteroa lagun dutela. Inauteri garaian garbiari eta zikinari erreferentziak ohikoak dira, eta erratza darabiltzaten moztarrok ere ohikoak dira, Lantzeko txantxoak lekuko.

Txindokiko magalean, Abaltzisketan txantxoak bezala, Amezketan talai dantzariak ateratzen dira eskean. Bi taldeek Larraitzeko ermitan egiten dute topo igande eguerdian. Antzera ibiltzen dira ere Arano eta Goizuetan, etxez etxeko eskean, bai eta Lesakan fraindarrak eta goitarak ere. Hainbat dantza erritual eta bestelako ospakizunetan gertatu moduan, tradizioaren izenean gizonezkoek hartu zuten dantza berentzat. Gizartearen bilakaeraren lekuko, aldaketa iritsi da leku gehientzuenetara. Abaltzisketan 2022an lehen aldiz atera zen emakumezko bat dantzarien taldean. Dantza esparruan, kopuruei erreparatuz gero emakumezkoak nagusi dira kasik denean.

Alkandora eta galtza zuriak soinean, gerriko eta txapel gorriak, gorbata estua, beste garai bateko dantzari talde baten aurrean geundekela lirudike, txapelaren apainketa zainduagatik eta soinean trabeska lotuta, zabal-zabal, daramatzaten zapi koloretsuengatik ez balitz. Txapela hari zuriko marrazki geometrikoz apaindua dute, bueltan-bueltan borla zuri txikiak dituztela. Ez da askorik behar inaute igandeko eske erronda gauzatzeko.

Azken hamarkadetan ezagunak egin diren beste landa eremuko inauteri zenbaiten aldean, itxuraz sotilak dira Abaltzisketakoak: baserri bakoitzean errepikatzen den dantza, zuria nagusi duen jantzia, okasiorako apaindua, eta makil dantza bat. Mozorro berezi eta egitarau luze eta ikusgarrien artean maiz ahazten dugu etxez etxeko eskea izan dela berez inauterietako funtsa: herritarrak elkar agurtuz, herria noraino heltzen den gogorazteko erritu xume bezain eraginkorra.